Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

8

AGINDUA, 2009ko abenduaren 7koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuarena, Elorrio udalerriko 3.15 Burutzapen Unitatean, 17 eraikinean, 24 babes ofizialeko etxebizitza esleitzeko hautaketa-prozesua hasten duena eta hainbat zehaztasun finkatzen dituena.

GERTAKARIAK

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduak babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen du. Hau, Babes publikoko etxebizitzen erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruaren inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 28ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan jasotzen da.

2.– 24 babes ofizialeko etxebizitzen sustapena Elorrioko 3.15 Burutzapen Unitatean, 17 eraikinean kokatuta dago, Ormak Egin Construcciones SAk sustatzen du, eta aipatutako aginduak arautzen duen prozedura aplikatu behar zaio. Sustapen horrek 2008ko urriaren 9an eskuratu zuen behin-behineko kalifikazioa eta EB2-00468/06-LC-0 du espediente zenbakia.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Organo honi dagokio honako zehaztasunak finkatzeko eskumena, hala xedatzen baita Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 4. artikuluan, eta baita babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2008ko apirilaren 16ko Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Aginduaren 7. artikuluan ere.

2.– Sailburuaren 2008ko apirilaren 16ko Aginduak, honakoa adierazten du 7. artikuluan:

«1.– Hautespen-prozesua Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez hasiko da. Agindua sustapenaren behin-behineko kalifikazio-egunaren ondoren eman beharko da, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

2.– Prozedura hasteko Agindu horrek gutxienez honako alderdi hauek zehaztuko ditu:

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

8

ORDEN de 7 de diciembre de 2009, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se inicia el proceso de selección y se determinan diversas especificaciones, para la adjudicación de 24 viviendas de protección oficial en la Unidad de Ejecución 3.15, en el edificio 17, en el municipio de Elorrio.

HECHOS

1.– Mediante Orden del Consejero del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes de fecha 16 de abril de 2008, se regula el procedimiento de adjudicación de las viviendas de protección oficial, tal y como se recoge en el artículo 12 del Decreto 39/2008 sobre régimen jurídico de viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo.

2.– La promoción de 24 viviendas de protección oficial ubicada en la Unidad de Ejecución 3.15 en el edificio 17, en el municipio de Elorrio y promovida por Ormak Egin Construcciones S.A., se encuentra sometida al procedimiento regulado en la citada orden, y ha recibido la correspondiente calificación provisional con fecha 9 de octubre de 2008 bajo el número de expediente EB2-0468/06-LC-0.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.– Este órgano es el competente para determinar las presentes especificaciones en virtud de lo previsto en el artículo 4 del Decreto 607/2009, de 24 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes y en el artículo 7 de la Orden de 16 de abril de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre procedimiento de adjudicación de viviendas de protección oficial.

2.– La antedicha Orden del Consejero de fecha 16 de abril de 2008 señala lo siguiente en su artículo 7:

«1.– El proceso de selección se iniciará mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales que deberá dictarse con posterioridad a la fecha de la calificación provisional de la promoción y publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco.

2.– Dicha Orden de inicio del procedimiento de selección determinará, como mínimo, los siguientes extremos:

a) Esleitu beharreko etxebizitzen kopurua. Era berean, indarreko araudia aplikatuz, etxebizitzako berariazko beharrak asetzeko, birkokatze-operazioetarako edo beste behar batzuk asetzeko kendu beharko diren etxebizitzen kopurua adieraziko da.

b) Sustapenean interesa dutela deklaratutako udalerriak.

c) Hurrengo artikuluek adierazten dituzten kupoak eta kupo gehigarriak, baldin badaude.

d) Etxebizitzen lagapen-erregimena.

e) Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eskaerak noiz arte hartuko diren kontuan.

f) Lehentasun-ordena, aldi berean kupo batean baino gehiagotan parte hartzeko baldintzak biltzen dituzten eskatzaileak dauden kasuetarako.

g) Argitalpenak egiteko komunikabidea Lurralde Ordezkaritzetako Iragarki Taula izango dela adieraztea».

Aipatutako lege-xedapenak eta oro har gai honetan erabilgarri diren gainerakoak aztertu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Elorrioko udalerrian 24 babes ofizialeko etxebizitza esleituko dira sustapen honetan.

Bigarrena.– Elorrio izango da espediente honetan interesa duen udala, sustapen hau osatzen duten etxebizitzen erdiei dagokienez. Gainerako 12 etxebizitzetarako Durangoko eskualde egiturako udalak izango dira interesatuak.

Hirugarrena.– Elorrio udalerri interesatutzat jotzen den 12 etxebizitzetarako, honako kupo hauek gordeko dira:

a) 5 etxebizitza, bere eskabideak 4 urteko antzinatasuna duen bizikidetza-unitateentzat. Antzinatasun edo aldi hori honela zenbatuko da: Etxebiden izena emateko eskariaren datatik Agindu hau argitaratu den egunera arte.

b) 5 etxebizitza, 25 eta 35 urte bitarteko bizikidez osaturiko bizikidetza-unitateentzat.

c) 2 etxebizitza, gainerako eskatzaileentzat.

Eskatzaileek aldi berean hainbat kupotan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte, zenbaki honetan finkatutako lehentasun-hurrenkera jarraituko da.

a) Número de viviendas a adjudicar. Se indicará igualmente el número de viviendas que han de ser detraídas para ser destinadas a necesidades específicas de vivienda, para operaciones de realojo o para cualquier otra necesidad en aplicación de la normativa vigente.

b) Municipios declarados interesados en la promoción.

c) Cupos a que se refieren los artículos siguientes y cupos adicionales si los hubiere.

d) Régimen de cesión de las viviendas.

e) Fecha hasta la cual serán tenidas en cuenta las solicitudes de inscripción en el Registro de Solicitantes de Vivienda.

f) Orden de prelación en el caso de que existan demandantes que reúnan las condiciones necesarias para formar parte simultáneamente de varios de los cupos.

g) Indicación de que el Tablón de Anuncios de las Delegaciones Territoriales serán el medio de comunicación donde se efectuarán las sucesivas publicaciones.»

A la vista de los preceptos legales señalados y demás de general y concordante aplicación.

RESUELVO:

Primero.– El número de viviendas de protección oficial a adjudicar en la presente promoción del municipio de Elorrio es de 24.

Segundo.– Se declara municipio interesado en el expediente el municipio de Elorrio respecto de la mitad de las viviendas que conforman la promoción. Para las otras 12 viviendas se declaran municipios interesados los del Área Funcional de Durango.

Tercero.– De las 12 viviendas para las que se declara municipio interesado el municipio de Elorrio, se reservarán los siguientes cupos:

a) 5 viviendas para unidades convivenciales cuya solicitud tenga 4 años de antigüedad. Dicha antigüedad se computará desde la fecha de solicitud de inscripción en Etxebide hasta la fecha de publicación de la Orden.

b) 5 viviendas para unidades convivenciales cuyos integrantes tengan una edad comprendida entre los 25 y los 35 años.

c) 2 viviendas para el resto de solicitantes.

En el caso de que las solicitudes reúnan las condiciones necesarias para formar parte simultáneamente de varios de los cupos se seguirá el orden de prelación señalado en este número.

Laugarrena.– Durangoko eskualde egiturako udalak interesatutzat jotzen diren 12 etxebizitzetarako, honako kupo hauek gordeko dira:

a) Etxebizitza bat, mugikortasun urri iraunkorra duten elbarriei egokitutakoak. Kupo honetan gurpil-aulkira mugatuta daudenak sartuko dira. Gainerako eskabideak, hau da, 2008ko apirilaren 16ko Aginduak, babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedura arautzen duenak, 8. artikuluan aipatzen dituen gainerako baremoei dagozkienak, doakien kupora pasako dira.

b) 4 etxebizitza, bere eskabideak 4 urteko antzinatasuna duen bizikidetza-unitateentzat. Antzinatasun edo aldi hori honela zenbatuko da: Etxebiden izena emateko eskariaren datatik Agindu hau argitaratu den egunera arte.

c) 5 etxebizitza, 25 eta 35 urte bitarteko bizikidez osaturiko bizikidetza-unitateentzat.

d) 2 etxebizitza, gainerako eskatzaileentzat.

Eskatzaileek aldi berean hainbat kupotan parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte, zenbaki honetan finkatutako lehentasun-hurrenkera jarraituko da.

Bosgarrena.– Sustapen honetako etxebizitzak lagatzeko araubidea azalera-eskubidekoa izango da.

Seigarrena.– Etxebiden izena emateko 2009ko azaroaren 30era arte erregistroan sarrera izan duten eskabideak hartuko dira kontuan.

Zazpigarrena.– Eskatzen diren lagapen-erregimenei eta udalerriei dagokienez, agindu hau argitaratzen den eguna hartuko da kontuan.

Zortzigarrena- Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendetan, besteak beste, onartutako eskaera bakoitzari orotara dagokion zenbaki kopurua agertuko da.

Bederatzigarrena.– Argitalpenak egiteko komunikabidea Lurralde Ordezkaritzetako Iragarki Taula izango da.

Hamargarrena.– 2008. urteko zergaldiko diru-sarrera haztatuak 9.000 euro baino txikiagoak ez direla eta 35.000 euro baino handiagoak ez direla egiaztatzea eskatzen da. Mugikortasun urria duten ezgaituak edo ezgaitu psikikoak izanez gero, aski izango da 3.000 euroko gutxieneko diru-sarrerak egiaztatzea.

Hamaikagarrena.– Etorkizuneko titularretakoren batek erroldaturik egon beharko du interesatutzat jotako edozein udalerritan, etxebizitzen esleipen-prozedurari hasiera ematen dion agindu hau argitaratzen den eguna baino urtebete lehenagoko antzinatasunez.

Cuarto.– De las 12 viviendas para las que se declaran municipios interesados los municipios del Área Funcional de Durango, se reservarán los siguientes cupos:

a) 1 vivienda adaptada para persona discapacitada con movilidad reducida de carácter permanente. Se incluirá en este cupo a los confinados en silla de ruedas. El resto de solicitudes correspondientes a los demás baremos a que se refiere el artículo 8 de la Orden de 16 de abril de 2008, sobre procedimientos de adjudicación de viviendas de protección oficial, pasarán a formar parte del cupo que les correspondiera.

b) 4 viviendas para unidades convivenciales cuya solicitud tenga 4 años de antigüedad. Dicha antigüedad se computará desde la fecha de solicitud de inscripción en Etxebide hasta la fecha de publicación de la Orden.

c) 5 viviendas para unidades convivenciales cuyos integrantes tengan una edad comprendida entre los 25 y los 35 años.

d) 2 viviendas para el resto de solicitantes.

En el caso de que las solicitudes reúnan las condiciones necesarias para formar parte simultáneamente de varios de los cupos se seguirá el orden de prelación señalado en este número.

Quinto.– El régimen de cesión de las viviendas de la presente promoción será el de derecho de superficie.

Sexto.– Se tendrán en cuenta las solicitudes de inscripción en Etxebide que hayan tenido entrada en el registro hasta el 30 de noviembre de 2009.

Séptimo.– Se tendrán en cuenta los regímenes de acceso y los municipios demandados a fecha de publicación de la presente Orden de inicio.

Octavo.– Las listas de admitidos y excluidos contendrán entre otros extremos, el total de números a asignar a cada una de las solicitudes admitidas.

Noveno.– El Tablón de Anuncios de las Delegaciones Territoriales será el medio de comunicación donde se efectuarán las sucesivas publicaciones.

Décimo.– Se requiere acreditar ingresos anuales ponderados no inferiores a 9.000 euros y no superiores a 35.000 euros en el periodo impositivo correspondiente al ejercicio de renta del año 2008. En el caso de personas discapacitadas con movilidad reducida o de discapacitados psíquicos, bastará con acreditar ingresos mínimos de 3.000 euros.

Undécimo.– Alguna o alguno de los futuros titulares habrá de estar empadronado, con una antigüedad mínima de un año anterior a la fecha de publicación de la presente Orden de inicio, en cualquiera de los municipios declarados interesados.

Hamabigarrena.– Itxaron-zerrenda agortuz gero, esleitu gabe geratzen diren etxebizitzak, dagokion Lurralde ordezkariak zozketa bidez esleituko ditu araudiak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituzten eskabideen artean. Etxebiden izena emateko eskabideak kontuan hartuko diren azken eguna atzeratzea eta sustapenean interesatutzat deklaratutako udalerriak zabaltzea posible izango da.

Agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke hilabeteko epean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio sailburuari zuzenduta; edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa hasieratik, zuzenean, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da errekurtso biak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 7a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

Decimosegundo.– Las viviendas que queden sin adjudicar una vez agotada la lista de espera se adjudicarán por el Delegado Territorial correspondiente mediante sorteo entre aquellas solicitudes que cumplan los requisitos normativamente establecidos. Se podrá ampliar la fecha hasta la cual serán tenidas en cuenta las solicitudes de inscripción en Etxebide así como los municipios interesados en el expediente.

Contra la presente Orden procede interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno Vasco en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo, ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 7 de diciembre de 2009.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.